## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 64 ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 64 ENERGÍA Y CAMBIO CLIMÁTICO

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Plana (2010-2020) 2009ko urriaren 19an onetsi zuten Arabako Batzar Nagusiek, eta xede nagusi du lurralde historikoan energia mota hori ezartzea sustatzea.

Planaren jarduketa programetan, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko ekintzak indartzea jasotzen da eta baita energia berriztagarrien ezarpena eta ustiaketa sustatzea ere, bereziki baliabide endogenoekin lotutakoak. Planak garrantzi berezia ematen dio sektore publikoari.

Ekintza esparru horretan garrantzi handia du sailak urtero lurraldeko toki erakundeentzat egiten duen deialdiak, jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzak diruz laguntzeko. Dirulaguntza jaso daiteke, besteak beste, honako hauetarako: eraginkortasun energetikorako planak egin eta neurriak ezartzeko; eraikin eta ekipamendu publikoetan energia berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak jartzeko, hala nola eguzki energia termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, geotermia eta abar; eta mugikortasun elektrikoa bultzatzeko, erabilera publikoko karga puntuak eraiki eta abian jartzearen bidez eta titulartasun publikoko flotetarako ibilgailu elektrikoak eskuratzearen bitartez.

Aldundiaren instalazio eta ekipamenduetan energia berriztagarrien erabilera sustatu eta ezartzeko lan ildo espezifikoan, azpimarratzekoa da Done Bikendi Haraneko eta Espejoko araztegietarako autokontsumorako instalazio fotovoltaikoaren obrak amaitu eta abian jarri izana, bai eta hobetu izana ere Garaioko Parkeko informazio bulegoa hornitzen duen instalazio fotovoltaikoa.

Gai horretan, halaber, aipatu behar dira Aizkorri-Aratz, Gorbeia, Izki eta Valderejoko parketxeetan energia efizientziako neurriak ezartzeko eta autokontsumoko sistema fotovoltaikoak instalatzeko

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El Plan de Promoción y Desarrollo de las Energías Renovables en Álava (2010-2020) fue aprobado por las Juntas Generales de Álava el 19 de octubre de 2009 y tiene por objeto el impulsar la implantación de este tipo de energías en nuestro territorio.

El Plan contempla dentro de sus programas de actuación el potenciar acciones que contribuyan al ahorro y la eficiencia energéticos así como al impulso a la implantación y aprovechamiento de las Energías Renovables, particularmente las referidas a recursos endógenos. El Plan incide de manera especial en el sector público.

En este marco de acción tiene una especial relevancia la convocatoria anual del Departamento dirigida a las Entidades Locales del territorio para el apoyo de acciones de Sostenibilidad Energética. Son objeto de ayuda económica la elaboración de planes e implantación de medidas de eficiencia energética, las instalaciones de aprovechamiento de energías renovables en edificios y equipamientos públicos: solar térmica, fotovoltaica, minieólica, geotermia, etc., así como el impulso a la movilidad eléctrica a través de la construcción y puesta en marcha de puntos de recarga de uso público y adquisición de vehículos eléctricos en flotas de titularidad pública, entre otras.

En la línea específica de trabajo referida a la promoción e implantación del uso de Energías Renovables en instalaciones y equipamientos de titularidad foral destacar la finalización de las obras y puesta en servicio de las Instalaciones Fotovoltaicas en autoconsumo para las Estaciones Depuradoras de San Vicente de Arana y Espejo así como la mejora de la instalación fotovoltaica que da cobertura a la Oficina de Información del Parque de Garaio.

Señalar también en esta temática los trabajos desarrollados de elaboración del proyecto ejecutivo para la implantación de medidas de eficiencia energética e instalación de sistemas fotovoltaicos en

proiektu exekutiboa egiteko egindako lanak.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste 21 erakunde publiko eta pribaturekin batera, “LIFE proiektua - URBAN KLIMA 2050” proiektuan parte hartzen du.

Europako Batzordeak 2019. urtearen amaieran onartu zuen proiektu hori, klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko proiektu integratuen arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko klima aldaketaren estrategia ezartzen laguntzea du helburu. Garapen eta egikaritze aldia 2025eko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen ekintzak bideratuta daude mugikortasun jasangarria sustatzera, emisioak murriztu eta bizitza osasungarrira, energia berriztagarriak erakusteko proiektuak garatzera eta Azpiegitura Berdea indartzera.

Lan esparru horretan, 2020ko ekitaldi honetan lan hauei ekin zaie:

- Mugikortasun elektrikoari buruzko azterlana, bereziki bizikletazkoa, hiri eremuak industrialdeekin lotzeko, Nerbioiko Parke Linealeko Ibilbide Berdeen eta Zadorrako Ibilbide Berdearen bidez.

- Azpiegitura berdea. Ibai arroen naturan oinarritutako soluzioak. Jarduketa eremuen diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko eta ezaugarriak zehazteko lanak egitea eta obren gauzatze proiektua idaztea, Nerbioi eta Zadorra ibaien goiko tartean ibaiertzetako ingurumena lehengoratzeko eta Natura 2000 Sareko espazioekiko konektibitate ekologikoa hobetzeko.

Klima aldaketari aurre egiteko ekintza ardatz horretan, bereziki nabarmendu behar da bi lan estrategiko hasi direla 2020an Arabako Lurralde Historikoan klima aldaketari aurre egiteko egokitzapen eta arintze politikak eta ekintzak diseinatzeko eta ezartzeko: "Klima Araba 2050" estrategia idaztea eta Arabako Lurralde Historikoko Azpiegitura Berdearen Plana egitea. Bi lanek jarraipena izango dute 2021eko ekitaldian zehar.

autoconsumo en los Parketxes de Aizkorri-Aratz, Gorbea, Izki y Valderejo.

Por otra parte la Diputación Foral de Álava participa junto con otros 21 instituciones y entidades públicas y privadas del País Vasco en el “Proyecto LIFE-Integrado URBAN KLIMA 2050”.

Este Proyecto fue aprobado por la Comisión Europea a finales del año 2019 dentro del área de Proyectos integrados de Mitigación y Adaptación al Cambio Climático y tiene por objeto contribuir a la implementación de la Estrategia de Cambio Climático del País Vasco. Su periodo de desarrollo y ejecución se prolonga hasta el 31 de diciembre de 2025.

Las acciones en las que participa la Diputación Foral de Álava están dirigidas al fomento de la movilidad sostenible, reducción de emisiones y vida saludable, al desarrollo de proyectos demostrativos de Energías Renovables y al refuerzo de la Infraestructura Verde.

En este marco de trabajo en este ejercicio 2020 se han iniciado los siguientes trabajos:

- Estudio de movilidad eléctrica y específicamente en bicicleta para la conexión de ámbitos urbanos con Polígonos Industriales a través de los Itinerarios Verdes del Parque Lineal del Nervión y la Ruta verde del Zadorra.

- Infraestructura Verde. Soluciones basadas en la Naturaleza en Cuencas Fluviales. Trabajos de diagnóstico, evaluación y caracterización de ámbitos de actuación y redacción del Proyecto de ejecución de obras para la restauración ambiental de riberas fluviales de los ríos Nervión y Zadorra en su tramo de cabecera y mejora de la conectividad ecológica son los espacios Red Natura 2000.

En este Eje de acción frente al cambio Climático debe destacarse especialmente el inicio en este 2020 de dos trabajos de carácter estratégico para el diseño e implementación de políticas y acciones de adaptación y mitigación frente al Cambio Climático en el Territorio Histórico de Álava: La redacción de la Estrategia “Kima Araba 2050” y la elaboración del Plan de Infraestructura Verde del THA. Ambos trabajos tendrán su continuidad a lo largo del próximo ejercicio 2021.

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 64 ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 64 ENERGÍA Y CAMBIO CLIMÁTICO

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Arabako toki erakundeek sustatutako guztira 24 jardun lagundu dira diruz, Jasangarritasun Energetikoaren Programaren barruan eta 2020ko ekitaldiari dagokion hornidura ekonomikoarekin, horrekin betetzeko energia eraginkortasunez erabiltzea eta aurreztea bultzatu, isurketak murriztu eta energia berriztagarrien ezarpena eta aprobetxamendua sustatzeko helburuak.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En cumplimiento de los objetivos de impulso a la eficiencia en el uso de la energía y ahorro energético, la reducción de emisiones y el fomento a la implantación y aprovechamiento de Energías Renovables, dentro del Programa de Sostenibilidad Energética y con la dotación económica correspondiente al ejercicio 2020, se han subvencionado un total de 24 actuaciones promovidas por las Entidades Locales Alavesas.